



## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOAREN KONTU OROKORRAREN 2006-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kontu Orokorraren, bere Erakunde Autonomoen eta Sozietate Publikoen fiskalizazio txosten derrigorrezkoa mamitu du, 2006ko ekitaldiaren gainekoa.

Osokoaren kide guztiek onetsi duten txosten honek kontularitza eta legezkontasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu, kudeaketa hobetzeko gomendioak luzatu eta Aldundiaren finantza egoera aztertzen du.

Legezkontasunaren atalean, HKEEK Foru Aldundiaren jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du, txostenean bertan jaso diren hainbat salbuespen azpimarratuz.

Sarrera fiskalei dagokionez, HKEEK zera azpimarratu du: atzeraldiak izan direla 28 milioi euroko 42 gerorapen-eskeen ebazpenean; iraungitzeagatiko bajak, 87 kasutan zorrak jakinarazteko orduan derrigorrezko izapideak bete ez direlako eta emandako gerorapenetatik bostetan, 9 milioi eurokoetan, dagozkion bermeak ez direla gauzatu. Halaber, Erakunde fiskalizatzaileak adierazi du fiskalizazio txosten hau jaulki den datan ez direla ebatzi Irungo Instrukzioko Epaitegiaren aurrean salatutako zerga sarreren balio gabetzeak.

Administrazioko kontratazioaren fiskalizazioan salbuespenek azpimarratzen dute aztertutako hainbat kontraturen esleipenean publizitate eta lehia printzipioak ez direla bete eta 7 kontratu exekutatzean aldaketa adierazgarriak egin direla, horien zenbatekoa aintzat hartuz gero, Epaitegiak kontratazio horiek itxuragabetu egiten dituztela irizten diolarik. Berebat, 20 kirol erakunderekin izenpetutako beste hainbeste babesletza kontraturen xedea zehaztugabe egotea azaleratu da, ezen, zehazgabetasunaz gain bete direla egiaztatzea eragozten baitu; eragiketa hauek diru laguntza izaera dute eta honenbestez, publizitate eta lehia printzipioak gordez izapidetu behar ziratekeen.

Diru laguntzen emakidari dagokionez, HKEEK gailendu du Diputatuen Kontseiluak 20 milioi euro egin dituzten 52 diru laguntzaren emakida onetsi duela egoki den publizitatea eta lehia sustatzeko ezintasuna justifikatu gabe; halaber, bi Foru Diputatuk emandako beste bi diru laguntzak emakida horietarako foru arautegiak ezarritako muga



gainditu dute. Berebat, 6 espedientetan diruz lagundutako zenbatekoan balio erantsiaren gaineko zerga jaso dela ikusi dugu eta zenbateko hori zerga aitortpenetan murriztu denez gero, GFAk kopuru hori itzultzeko eskaria egin behar du. Azkenik, arrazoitu gabe ukatutako diru laguntzei buruzko salbuespen zehatzak azaleratu dira.

Legezkotasunaren iritzia lau etxebizitza prozedura negoziatu bidez erosi izanari dagokion atalak osatzen du, prozedura hori erabiltzeko bide ematen duten inguruabarrak egiaztatu gabe; baita, orube baten erosketak ere, erosketa gauzatzeko tasazio txosten bat egin zelarik prezioa finkatu osteko datarekin.

Kontu Orokorrari dagokionez, HKEEK aldeko iritzia ematen du, salbuespen izanik zerga zordun eta hartzekodunen aurrekontuko erregistro eza eta ibilgetuko hainbat kontusail ez xehekatzea.

Erakundeen administrazioari buruzko iritzia soil-soilik salbuespen zehatzak jasotzen ditu, Uliazpi eta Bidegi, SA eta IZFE, SA sozietateen administrazioko kontratazioan publizitate eta lehia printzipioak ez betetzeari buruzkoak.

Epaitegiak hainbat gomendio luzatu ditu aurrekontu eta kontularitzako hainbat alderdiri dagozkionak, sarrera fiskal, ondasun eta zerbitzuen kontratazioa, diru laguntzen emakida, langileen kudeaketa eta foru ondareari buruzkoak. Sozietate publikoei dagokienez, azpimarratzekoa da Etorlur, SAri proposatutako gomendioa, ondasun higiezinak erosteko eta erosketa horien finantzaketa ziurtatzeko baloraketa-txosten teknikoak egiteko eskatzen duena. Gomendio hauek luzatu dira, Sozietateak 28 milioi euroko zenbatekoarekin egindako erosketa eragiketa bat aztertu ondoren, izan ere, gabezia horiek daudela egiaztatu baita.

Finantzaren azterketatik ondorioztatu da emaitza arrunta % 8 gehitu dela eta gainera, zorpetzeak emaitza arruntarekiko izan duen bilakaera, 2002an % 86 izatetik 2006an % 14 izatera aldatu dela. Azkenik azpimarratu da Diruzaintza Geldikin handia eta erabilitako zorpetze maila urria loturik daudela inbertsio eragiketen exekuzio txikiarekin.